Arte lantegiak

Historian zehar, gizakiak beren ezagutzaz baliatu dira bizi diren inguruko baldintzak aldatzeko, eta objektu mota desberdinak asmatu, fabrikatu eta erabili dituzte beren beharrei erantzuteko. Aldi berean, sorkuntzaren esperientzia hori tarteko, gizakiek ezagutzaren forma berriak beregana-tu dituzte eta horrela eratu da herrien eta estatuen kultura materialaren ondarea, gaur egun Arte Aplikatuak esaten diegun lanez osatua. Betidanik arte lantegien bitartez bildu eta besteren-ganatu izan da ondare hori.

Bestalde, fenomeno artistikoaren ikuspuntutik, gure garaiko artearen ezaugarri orokorra da sentsibilitate estetikoa etengabe handitzea. Haustura formalaren itxuraren azpian, abangoardiako arteak etengabeko bilaketarako gaitasuna sortu du eta behinola arteak elkarrengandik bereizteko ezarri ziren muga akademikoak gainditu ditu. Aurrerabide horretan gauzaki, kontzeptu, prozesu eta tekniken unibertsoa izateraino iritsi da gaurko artea eta haren mugak zehazten zailak dira.

Testuinguru honetan, "Arte lantegiak" irakasgaiak aukera eskaintzen die Arteen Batxilergoko ikasleei artearen lengoaian sartzeko, haren teknika desberdinetako prozeduren bitartez. Era horretan, koiuntura bikoitzean jartzen ditu ikasleak: batetik, materialekin eta teknikekin lan egi-teak adierazpenerako dituzten kualitateak agerrarazten dizkie, eta bestetik, arte lanbideei dago-zkien ahalbide eta arauen mendean jartzen ditu.

Horrelako konpromisoa agertzen da tradiziozko arte lantegietan egindako obra paregabeetan, estatuko ondare historiko artistiko oparoan aurkitzen ditugun horietan, eta hori gabe ezinezkoa litzateke gure kultur nortasuna definitzea.

Gaur egun, arte lantegien arloa esparru aberats eta askotarikoa gertatzen zaigu artea eta ikerkuntza plastikoa ezagutzeko.

Irakasgai honek prestakuntzari begira duen alderdi garrantzizkoena hauxe da: berariaz laguntzen du sentsibilitate artistikoa materiaren eta formen lengoaiari begira landu eta garatzen, ikasleek aurreko etapetan eskuratutako ezagupenak osatzen eta haien pertzepzio eta tresna eremua zabaltzen. Horri esker, arte plastikoen gaineko ezagupen sakonagoei ekin ahal izanen diete.

Era berean, "Arte lantegiak" irakasgaiak diseinuarekin eta arte aplikatuekin zerikusia duten geroagoko ikasketa desberdinetarako prestakuntza dakar berarekin, eta planteamendu enpirikoen bidez oinarrizko lengoaia formal bat eskaintzen die ikasleei, bai eta ikasketa horiei probetxua ateratzeko moduan ekiteko behar dituen trebetasun edo gaitasun bereziak ere. Horrez gain, teknika eta materialei buruzko hasierako ezagutza eskaintzen du, bai eta balio eta jarrera egokiak ere, ikasleak izaera artistiko-profesionaleko lan artistikoari buruzko ikasketa berariazkoetarantz bideratu ahal daitezen.

Hezkuntzak gaitasuna eman behar die ikasleei beren garaiko kultura ulertzeko; kultura horretan arte aplikatuen eta diseinuaren berezko objektuak herritarren egunerokotasunaren zati dira. Hortaz, ikasleak ezagutza eta ikaskuntza horietan abiaraztea da helburua. Aldi berean ahaleginak eginen dira eguneroko bizitzaren osagai diren kultur sistema eta balio artistikoekiko jarrera gogoetatsua sustatzen.

"Arte lantegiei" dagozkien prozedurak kultur forma artistikoak ezagutzeko tresna bezala erabiltzea eta gure inguruko giroan duten eragina, horiexek dira irakasgai honen edukiak antolatzeko ardatza osatzen dutenak. Edukiak, berriz, prozedurari dagozkio kontzeptuei baino gehiago, eta kontuan hartu behar da aukerako irakasgai honen izaera orientatzailea, sarbide gisakoa eta instrumentala.

Ikastetxeek eskaini ahal dituzten arte lantegiak arte plastikoetako eta diseinuko lanbide desberdinei dagozkien lanbide jardueraren arloekin bat datoz. Tailer horietako bakoitza aukerako irakasgaitzat joko da. Hona zein diren:

– Eskulturaren arte aplikatuak.
– Pinturaren arte aplikatuak.
– Liburuaren arteak.
– Zeramika.
– Urregintza eta bitxigintza.
– Argazkigintza.
– Ehungintza.
– Beiragintza.

Helburuak

Irakasgai honen garapenak ondoko gaitasun hauek bereganatzen lagundu behar die ikasleei:

1. Oinarrizko hiztegia, berariazko material ohikoenak eta haien adierazpen lengoaiak ezagutzea.
2. Oinarrizko tresnak eta prozedurak ezagutzea, bai eta haien erabilera eta eraginkortasun praktikoa ere.
3. Dagokion lantegiko lan berezien balore plastikoen gainean gogoeta egitea, eta haien gizartean eta kulturan kokatzea.

4. Dagokion lantegiko berariazko lanen balore plastikoez ohartzea, gozamen eta ezagutza iturri eta gizabanakoen zein taldeen garapenerako baliabidea direlakoan.
5. Trebetasunez erabiltzea, hastapen mailan, arte lantegiari dagozkion oinarrizko tresnak eta prozedurak.
6. Obra sinpleak egin eta interpretatzea, dagokion arte lantegi horretako teknika eta balore plastikoak erabiliz.
7. Arte lantegiaren errealizazioen bitartez sormena adieraztea.
8. Dagokion arte lantegiarekin zerikusia duten zientzia eta teknologiaren garapenaren aplikazioak erabiltzea.
9. Arte Aplikatuen eta Diseinuaren inguruko lanbideak eta ikasketak ezagutzea, geroago behar den moduan hautatu ahal izateko.

Edukiak

I. Arte lantegia: eskulturaren arte aplikatuak.

– Arte aplikatuaren objektu tridimentsionala.

– Arte aplikatua: izaera eta aukera artistikoak. Haren agerpenen balorazio historiko-kulturala, plastikoa eta espresiboa. Eskulturaren arloko Arte Aplikatuetako prozedura eta material tradizionalak.

– Zur-lanketa artistikoa.

- Zur-lanketaren balorazio historikoa, kulturala eta plastikoa.
- Zur ohikoenen kualitate espresiboak eta ezaugarri organikoak.
- Berariazko tresnen izenak eta funtzioa.
- Zuzeneko zur-lanketa.
- Moztu, atalkatu eta itsasteko sistema.
- Puntuak erreproduzitu eta ateratzeko prozedurak.

– Artisautzako harri-lanketa.

- Harriaren ahalbide espresibo eta plastikoak: artean eta kulturan izan duen garrantziaren azalpen laburra.
- Harriaren ezaugarriak eta sailkapena.
- Tresna berariazkoak eta tradiziozko teknikak.
- Puntuak erreproduzitu eta ateratzeko sistemak.
- Leunketa eta akaberako metodoak.

– Forja lan artistikoa.

- Arte metalikoen garrantzia eta haien esanahi plastikoaren balorazioa, iraganean eta gaur egun.
- Material eta tresna tradizionalak.

- Sutegia eta burdin lana: prozesuak eta lan sistemak.
- Objektu sinpleak egitea.

II. Arte lantegia: pinturaren arte aplikatuak.

– Pinturaren arte aplikatuak.
- Bi dimentsioko hizkuntza artistikoa: kontzeptua, aplikazioak eta espresio ahalmenak.
- Hormetako prozeduren teknikak, materialak eta planteamendu plastikoak.

– Ornamentazioko pintura aplikatua.
- Hormetako ornamentazioari aplikatutako tradiziozko teknikak.
- Berariazko tresna eta lanabesen terminologia eta funtzioa.
- Euskarriak eta haien prestaketa.
- Pinturak eta bernizak.
- Ornamentazioko pinturaren balio espresiboa eta haren garrantzi historiko-artistikoa.

– Zeramikazko estaldurak.
- Zeramikako artearen garrantzia.
- Buztinaren propietateak eta motak.
- Lantegiko tresnen terminologia eta erabilera.
- Labe motak.
- Kolorea eta zeramikan duen aplikazioa.
- Paretaren estalduran aplikatutako modulu formak: azulejua eta haren ahalbideak.

– Mosaikoak.
- Mosaikoen artea: balio historiko-artistikoa eta apaindurazko aplikazioa.
- Berariazko materialak: bereiztea, prestatzea, zatikatzea eta aukeratzea.
- Lantegiko lanabesak, tresnak eta elementu osagarriak: funtzioa eta erabilera.
- Behin-behineko behin betiko euskarriak.
- Mosaikoaren sendotzea eta akabera.

– Beirateak.
- Beira: osaera eta motak.
- Beiraren aplikazioa ornamentazio arkitektonikoan: beirate kontzeptua, haren garrantzia lehen eta orain.
- Berariazko tresnak eta lanabesak.
- Beira laua eta haren manipulazioa.
- Labea eta haren erabilera.
- Bozetoa, kartoia.
- Kolorearen balio espresiboa: grisailak eta esmalteak.
- Beirateak mihiztatzeko teknikak.

III. Arte lantegia: liburuaren arteak.

– Liburuaren arkitektura.
  • Liburuaren osagaiak.
  • Papera: ezaugarriak. Paperaren formatuak. Paperen sailkapena haien itxura eta portaeraren arabera. Papera eskuz fabrikatzea.
– Tipografia.
  • Letra. Karaktereen familiak, sailak eta gorputzak.
– Ilustrazioa.
  • Ilustrazioaren funtsezko osagaiak eta ezaugarriak.
  • Teknikak eta euskarriak.
  • Ornamentaziorako ilustrazioa.
  • Testuaren ilustrazio deskriptiboa.
  • Estiloak eta joerak.
– Erreprodukzio eta inpresio mekanikoko teknikak.
  • Fotograbatua.
  • Fotolitografia.
  • Lerroko grabatua, zuzeneko grabatua.
  • Trikromia eta kuatrikromia.
  • Erliebeko inpresioa, "offset" inpresioa.
– Ilustrazioa artisten liburuetan eta ilustrazio bibliofiloa.
  • Liburuari aplikatutako teknika grafiko artistikoak egin eta estanpatzeko prozesuak ezagutu eta erabiltzea: xilografia, kalkografia, litografia, serigrafia.
– Diagramazioa eta maketazioa.
  • Orriak eduki beharreko elementuen kokapena: zeinuak, letrak, irudiak, tarteak, marjinak.
  • Maketa eredua.
– Azaleztatzea.
  • Azaleztatzeko materialak.
  • Azaleztatzeko zenbait teknika: koadernoak tolestea.
  • Jostura motak: zintak, puntu jarraitua, txandakatua.
  • Liburua paperez azaleztatzea.
  • Liburua bizkar karratuarekin azaleztatzea.
  • Liburua azal gogorrez azaleztatzea.
  • Karpeta bakunak.
  • Liburuaren orri ertzetako apaindura: tindatua, jaspeatua.

IV. Arte lantegia: zeramika.

– Zeramika.
  • Zeramikaren balorazioa, arte eta kultur ondarea den aldetik.
  • Zeramikako artearen jatorria eta sinopsi historiko laburra.
  • Aplikatzeko ahalbideak.
  • Definitzen duten faktoreak: materialak, lanerako teknikak, eraikuntza alderdiak eta apaindura alderdiak.
  • Egungo zeramikaren ikuspegia.
– Lehengaiak.
  • Buztinak: jatorria, osaera eta propietate plastikoak.
  • Manipulazioa eta masaren prestaketa.
  • Kontserbazioa, gordetzea eta birziklatzea.
  • Buztin mota batzuen ahalbideen gaineko esperimentazioa.
– Tresnak eta lanabesak.
  • Zeramikako materialen gainean eskuz edo berariazko tresnekin jardutea.
  • Lantegiko tresnen terminologia eta aplikazioa.
  • Labea eta erreketa: labe motak.
  • Erreketaren kurbak eta grafikoak.
– Zeramikari kolorea ematea.
  • Oxido eta pigmentuen propietateak eta ezaugarriak.
  • Kolorea, zeramikaren balio formala eta adierazpide estetikoa.
  • Engobea: osaera eta aplikazio-sistemak.
  • Engobe koloreztatuak eta beiraztatuak.
– Zeramikari aplikatutako ornamentazio plastikoa.
  • Zeramikako gainazalen ornamentazio tratamendua: testura, ziztada, grabatua, etab.
  • Erritmoak eta kontrasteak.
– Eraikuntza teknikak.
  • Modelatuaren funtsezko prozedurak: teknika erabilienak.
  • Formaren adierazkortasuna.
  • Formaren eta kolorearen arteko erlazioa.
  • Forma exentu sinpleak egitea.

V. Arte lantegia: urregintza eta bitxigintza.

– Urregintza eta bitxigintzaren garapen historiko laburra.
  • Urregintza eta bitxigintzako piezak lortzea: pieza eta objektuen fabrikazioa historian zehar, hasieratik gaur arte.

– Neurtu eta egiaztatzeko materialak eta tresnak.

- Urregintza eta bitxigintzako pieza eta objektuen fabrikazioan erabilitako materialak. Horien propietate mekaniko eta teknologikoak.
- Aleazioak. Merkatuko formak.
- Metrologia: neurri sistemak, baliokidetasunak.
- Magnitude linealetarako neurketa tresnak: metroak, erregela graduatuak, kalibreak, mikrometroak eta horien aldaerak.
- Magnitude angeluarretarako neurketa tresnak: angelu-garraiagailuak, eskuaira unibertsala, goniometroak.
- Egiaztapenerako tresnak: erregelak, eskuairak, egiaztapen-marmolak, sasieskuairak, konpasak (lodiera-konpasak eta barne-konpasak).

– Eragiketa teknologikoak.

- Urregile-bitxigilearen lan esparru fisikoa.
- Finkapen tresnak: tornuzila, baraila eta finkapenerako tresna lagungarriak.
- Karrakaketa: karrakak, haien sailkapena. Karrakatzeko teknikak.
- Ornamentazioaren hastapenak. Testurak.
- Marraketa. Alderdi orokorrak. Marraketarako funtsezko tresnak. Marraketa laua eta aireko marraketa. Marrazkia metalera ekartzea.
- Metalak ebakitzea, esku zerraz edo zerra mekanikoaz. Esku zerraz ebakitzea.
- Zizailaz edo gillotinaz ebakitzea. Zizel eta mailuz ebakitzea. Artaziez ebakitzea.
- Urragarriez ebakitzea.
- Tresna osagarriak: mailuak, mazoak, aliketak, kurrikak, giltzak, grifak, etab.
- Eskuz eta makinaz zulatzea. Barautsak: nola zorrozten diren. Fresaketa: fresa motak. Trefilaketa, ijezketa eta tenkaketa.

– Beroaren aplikazioak.

- Bero iturriak. Sopletea, haren ezaugarriak eta erabilera. Sugar motak.
- Urregintzan eta bitxigintzan erabiltzen diren metalen suberaketa. Haien galdaketa.
- Soldadura. Urgarriak. Piezen finkapena. Soldadura motak.

– Soldatzeko tekniketako hastapenak.

- Tolestaketa eta iraulketa. Planoak gainezarriz sortutako erliebeak.
- Forjaren teknikaren bidez lortutako bolumen exentuak eratzea.
- Grifatze teknika.
- Piezen akabera. Garbiketa eta desugerketa. Leunketa.

VI. Arte lantegia: argazkigintza.

– Argazkiko irudia.
  • Argazkigintzaren hastapenak eta jatorria: haren bilakaera historikoari buruzko oharrak.
  • Argazkilaritza, teknika eta artea.
  • Irudiak egin eta erreproduzitzeko argazki-sistemak.

– Kamera.
  • Argazki kameraren oinarrizko ezaugarriak: kamera mota desberdinen aplikazioak. Objektiboa. Fokatzea. Diafragma. Obturadorea. Eremu-sakonera zer den.

– Argi iturriak.
  • Argia neurtzeko tresnak eta sistemak.
  • Argi iturrien motak eta haien aplikazioak.
  • Argi intzidentea edo islatua neurtzeko fotometroak, eskuz erabiltzekoak edo kameran daudenak.
  • Argiaren ahalbideak sormenerako. Argiztatzeko teknikak.

– Material fotosentikorra.
  • Material sentikorren egiturak, ezaugarriak eta portaera.
  • Argazki papera eta argiaren aurrean duen erantzuna.
  • Filmaren sentikortasuna.
  • Errebelatzea eta positibatzea.
  • Argazki laborategiaren egitura eta funtzionamendua: materialak eta haien erabilera. Material positiboa, negatiboa eta horien aldaerak. Zuri-beltzean eta koloretan positibatzea. Iragazkiak eta horien motak. Irudia manipulatzeko teknikak. Koloretako materialen manipulazioa. Sintesi gehikorra eta kenkorra. Kontzeptua.

VII. Arte lantegia: ehungintza artistikoa.

– Ehungintzako materialak eta teknikak.
  • Ehun-zuntzak: jatorria, sailkapena eta lortzeko prozesuak.
  • Ehungintzako tekniken sailkapena.
  • Produkzio teknikak: goi-bilbea. Behe-bilbea. Puntua, txirikordak eta korapiloak. Ehundu gabeko oihalak.
  • Ornamentaziokoak: brodatuak eta aplikazioak. Estanpazioa.

– Ehungintzako prozesuetan erabiltzen diren makinak eta tresnak.
  • Ehun historikoen, tradizionalen eta gaur egungoen azterketa, ikuspegi tekniko, funtzional, artistiko eta sinbolikotik.

– Ehunak goi-bilbean eta behe-bilbean egiteko oinarrizko teknikak.
  • Ehunei buruzko teoria. Grafikoki nola irudikatu. Funtsezko lokailuak.

- Irazkia muntatzea.
- Goi-bilbe eta behe-bilbeko tekniketako hastapenak.
- Teknika horien ahalbide artistiko-estetikoen eta funtzionalen azterketa.

– Tindaketa eta estanpazioko oinarrizko teknikak.

- Koloragarriak. Zuntzak eta oihalak tindatzea.
- Zuzeneko eta erreserba bidezko estanpazio teknikak ikasten hastea.
- Teknika horien ahalbide artistiko-estetikoen eta funtzionalen azterketa.

-Bordatu eta parpailen oinarrizko teknikak.

- Bordatu eta parpailen teknika garrantzitsuenetako hastapenak.
- Teknika horien ahalbide artistiko-estetikoen eta funtzionalen azterketa.

VIII. Arte lantegia: beiragintza.

– Konformazioa: beira puztua.

- Beira puztuaren historia. Forma eta erabilera.
- Gaur egungo diseinu-prozesuak.

– Berotako beira puztuaren teknologiak.

- Puztea, kanabera erabiliz eta pultsuan.
- Labea: erreketaren teoria eta teknika.
- Beiren lehengaiak.
- Osaerak eta urtzeko teknikak.
- Beiraren amaierako tratamendua suberaketa labeetan.

– Beira puztuaren ornamentazioa eta apainketa.

- Teknika beroak: esmalte beiraztagarriak, pigmentuak eta aglutinatzaileak.
- Teknika hotzak: grabatu mekanikoak. Grabatu kimikoak.

– Beira laua.

- Beira lauaren historia.
- Garapen teknikoa eta itxitura arkitektonikoetan izandako ondorio estetikoak.
- Beira laua eta koloreztatua, lengoaia artistiko baten euskarria.
- Beirate beruneztatu baten prozesu estetiko eta teknikoa.
- Diseinuaren metodologia eta garapena. Bozetoa. Kartoia.
- Kalkoak, txantiloiak eta kalibrea. Metalezko armadura.
- Beira ebakitzea. Erruleta. Diamantea. Sailkako modulazioa.
- Beiraren gaineko pinturen teknikak.
- Beruneztadura eta mihiztatzeko beste zenbait teknika.

Ebaluazio irizpideak

Arte lantegi guztietarako berdinak

1. Ikuspuntu formal eta funtzional batetik aztertzea eguneroko bizitzan gurekin ditugun eta dagokion Arte Lantegikoak diren objektuak, haien egikeraren alderdi nabarmenenak eta formaren eta funtzioaren artean ezartzen den erlazioa baloratuz.
2. Arrazoitutako iritziak ematea, ahoz zein idatziz, dagokion espezialitateko lanen kalitate formalari eta ezaugarri estilistikoei buruz iritzi kritikoa dutela frogatzeko, eta lanak beren kultur testuinguruan kokatzea.
3. Dagokion arte lantegiarekin zerikusia duten lanbideen jarduera garrantzitsuenak bereiztea, geroago lanbide edo ikasketen inguruko aukerak egin ahal izateko irizpideak eskuratzeko.
4. Taldeko lanetan arazorik gabe parte hartzea, espezialitatearen terminologia eta norberak duen esperientzia sartuz problemak ebaztean.

Arte lantegia: eskulturaren arte aplikatuak

1. Lantegi honi dagozkion materialei (zura, harria, burdina eta beira) tresna eta prozedura desberdinak aplikatzea, haien funtzioa eta erabiltzearekin lortutakoa identifikatuz.
2. Erabiltzen diren teknikez baliatzea "artelanak" egiteko, materialak eta haien kualitateak bereiziz, eta halaber, aplikatutako prozedurak nola hartzen dituzten.
3. Erliebetako zuzeneko lanketa (forma sinpleekin) aplikatzea, egurrezkoak zein harrizkoak diren industri moduluen gainean, baliabide teknikoak eta tresna egokiak erabiliz, ez soilik manipulazio bide bezala, baizik eta norbere baliabide espresiboak sortzeko bide bezala.

Arte lantegia: pinturaren arte aplikatuak

1. Hormako pinturan, zeramikako estalduretan eta mosaikoetan erabiltzen diren materialak eta tresnak zein diren jakitea, espezialitate bakoitzari dagozkionak helburuaren eta erabileraren arabera hautatuz.
2. Erabiltzen diren teknika horietaz baliatzea proposatutako lanak egiteko, forma eta adierazpen kualitateak bereiziz eta egiteko trebetasuna baloratuz.
3. "Artelan" sinpleak egitea hormako pinturaren, zeramikako estalduren eta mosaikoen arloetan, espezialitate bakoitzari dagozkion bitartekoak eta baliabideak baloratuz.

Arte lantegia: liburuaren arteak

1. Lantegi honi dagozkion materialak eta tresnak zein diren jakitea, lanak ongi lortzeko modu egokian erabiliz, haien balioaz jabetuta eta garbi eta erabiltzeko moduan edukita.
2. Tipografiako familia garrantzitsuenak zein diren jakitea, bakoitzaren alde onak eta txarrak ezarriz komunikazioaren ikuspegitik, eta liburu baten elaborazioaren kasu zehatzetan aplikatuz.

3. Teknika desberdinak (tipografikoak, erreprodukziorako eta inpresiorako direnak, eta koadernatzekoak) erabiltzen hastea, alderdi formalak eta ahalbide espresiboak aintzat hartuta.

Arte lantegia: zeramika

1. Zeramikari dagozkion tresna eta materialak (buztinak, zotzak, morteroak, balantzak, oxidoak, pigmentuak eta labeak) zein diren jakin eta erabiltzen hastea.
2. Forma exentuak (organikoak edo geometrikoak) egitean planteatutako arazoak konpontzea, diseinuetan erabilitako koloreetan engobeak eta tonu balorazioak aplikatuz, eta aldi berean mota askotako testurak erabiliz, eta konposizioa eta garbitasuna baloratuz.
3. Azalak tratatzeko teknikak erabiltzea, modelatzeko prozedurekin batera (hutsean, erroilu, zirrindara edo xafla bidez), egosteko sistemen arabera eta alderdi formalak kontuan hartuz.

Arte lantegia: urregintza eta bitxigintza

1. Lantegi honetako tresnak identifikatu eta erabiltzea, hala nola: neurtzeko eta egiaztatzeko tresnak, urregintza eta bitxigintzako makinak, eta gehien erabiltzen diren gaiak (letoia, kobrea eta zilarra).
2. Proposatutako lanetarako erabiltzen diren teknikak eta prozedurak (tolestea, iraulketa, forja, grifaketa, dekapatua eta testurak egitea) baloratzea, alderdi formalez eta ahalbide plastikoez ere ohartuz.
3. Urregintza eta bitxigintzako pieza sinpleak (kaxak, markoak, solitarioak, zarrailuak, etab.) egitea, ezagupen teorikoak eta lantegiari dagozkion bitartekoak eta baliabideak erabili eta aplikatuz.

Arte lantegia: argazkigintza

1. Lantegi honetako material eta tresnak identifikatu eta erabiltzea, hala nola: argazki kamera eta horren elementuak, fotometroak, flash-ak, handigailuak eta material fotosentikorrak.
2. Argazki lanetan erabiltzen diren zenbait teknika (pelikularen esposizioa eta errebelatua, argia neurtzeko sistemak, irudiaren argi kontrasteak) bereizi eta haiek lantzen hastea, alderdi formalak eta osagai espresiboak baloratuz.
3. Argazki lantegiari dagozkion bitarteko eta baliabide espresiboek esku hartzen duten irudiak sortzea (barreneko zein kanpoko sekuentziak, esposizio bikoitzeko efektuak dituzten hartzeak, irazki eta biratuen erabilera).

Arte lantegia: ehungintza

1. Ehungintzako lantegiko materialak eta tresnak ezagutzea, haren oinarriak eta manipulatzean izaten duten portaera aztertuz, bai eta obra zehatzak egiteko egokitasuna ere.
2. Ehungintzako lantegian ohikoak diren teknikak eta prozedurak (goi eta behe-bilbeak, kordatzeak, korapilatzeak, bordatuak) erabiltzea, nolako gaia halako teknika berariazkoa aplikatuz egikeran eta alderdi plastikoan, prozedura eta material egokienak aukeratuz.

3. Egindako lanak baloratzea (tapizak, alfonbrak, bordatuak, etab.), egitean zein teknika, baliabide eta tresna erabili diren jakin eta horiek aztertzea, bai eta beren garai historikoan kokatzea ere.

Arte lantegia: beiragintza

1. Beiragintzako lantegiari dagozkion materialak (guraizeak, puntila, kanabera eta labea) erabili eta lan berariazkoak egiteko euskarri ohikoenak zein diren jakitea.
2. Beira huts edo lauaren teknikak erabiltzea, haien prozedurak (suaren bidezko esmaltatzea, azidoaren bidezko grabatua eta grabatu mekanikoa, beruneztadura eta grisailak) aplikatuz obra zehatzak egiteko, haien alderdi formalak eta ahalbide plastikoak aintzat hartuz.
3. Mota askotako obrak egitea, hala nola kopak, pitxerrak, beirateak, beiragintzako lantegiari dagozkion teknika eta prozedurak erabiliz (koratatze eta beruneztatze teknikak, akuarela, tenpera eta esmaltatua).